



E GASTEIZ


Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



badator...

KORRIKA 9



Arabak aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



**Arabako
Foru Aldundia**

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geu gasteiz martxo

Korrika: euskarren aldeko maratoia

15. orrialdea



Baskoniarekin Istanbulen elkartuko gara

24. orrialdea



Juanito Oiarzabal inoiz aitortzen ausartu ez dena

inkestak

...eta askoz gauza
gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Atzerritarrak paradisuan

GAUR EGUN, beste kontinente batzue-
tatik datozkigun "ezlegezko" etorkinak gure
gizarteko lagunik baztertuak dira. Egoera hori
larriagotzen da gure herrira ekarri dituen "azpiko
ekonomia" delakoan sarturik ez badaude.

Baztertutako hemengo lagunek (lautik bat dira
horiek, herri aberatsetan) dituzten arazoak, kan-
potik etorritako guztiek ere badituzte: langabezia
(emakumeak eta jende gaztea erasotzen dituen,
batez ere), prostituzioa, drogomenpekotasuna,
azpienplegua, kriminalizazioa, etabar. Baina,
etorkinak beste kontinente batzuetakoak badira,
beste arazo batzuk ere pairatzen dituzte:
klandestinitatean ibiltzea, erroak galtzea, famili
erreferentziak eta sentimenduetakoak galtzea,
geto batean bizi izatea, hizkuntz inkomunikazioa
gau eta egun sufritzea, hemendik bidalia izateko
beldurra izatea eta besteen arbuioa nozitzea,
besteak beste.

Gaur egun, atzeritarrek (legezkoak eta legez
kanpokoak kontuan izanda) biztanleriaren %0'5
besterik osatzen ez dutenez, aukera ezin hobea
dugu etorkin horiek gure gizartean txertatzeko,
eta, areago, hona etorriko direnei laguntzeko ere.
Halere, Afrikako eta Europako ekialdeko
etorkinak gure artean izatea benetako arazo
soziala da, gure agintarien iritziz.

Estatuaren definizioaren arabera, arrazistak ez
dira, soilik, jarrera xenofoboak agertzen dituzten
talde txikiak. Hortaz, Mendebaldeko etnozen-
trismoaren ezaugarriarik nagusienetarikoa bat dugu
arrazakeria. Gainera, arrazakeria erabat tinkat-
urik dago estatuaren politika ildoetan eta aberri
aberatsen kultur pentsamolde orokorrean, eta,
horri esker, sortu da gaur eguneko eredu
ekonomiko-soziala.

Izan ere, beldurraren kulturaren arrazoi-bideak
(etorkinek lapurtzen digute, lana kentzen digute,
zikintzen gaituzte, esaterako) ditu elikagai arra-
zakeriak. Halaxe da, beldurraren kultura
(arrazakeriaren iturri dena) ulertu ezina da
txanponaren beste aldea aintzat izan ezean,
alegia, norbere arraza gorestea eta identifikazio
kolektiboaren prototipoen gisara funtzionatzen
duten estereotipo menderatzaileak sortzea.
Munduan kultur bakar gisa orokortu den
Mendebaldeko kultura honi dagokionez,



estereotipo horiek irizpide etniko, biologiko eta
sozial hauek ditu barnean: gizon zuria, aberatsa,
heldua, gorputz ederra eta bere parean, ordea,
emakume beltza, zaharra, pobrea, lodia edo
anemiak joa. Beldurraren kulturaren ezaugarria
den etnozentrismoa arrazakeriaren beste aldea da
eta horrek, hain zuzen ere, bide ematen dio,
xenofobiari.

Gaur egungo eredu ekonomiko-sozialak
sortzen dituen bazterkeria kasuak ez dira
hutsalak, ez eta hurrik eman ere, behar-beha-
rrezkoak baitira egungo gizartearen moldeak
geroan ere sortzeko. Arrazakeria, eta, era berean,
autoritarismoa, sexismoa eta aberrien hazkunde
desberdina funtsezko giltzarri ditugu eta horiek
isladatzen dira, hain zuzen ere, gu bizi garen
Mendebaldeko gizarte honen funtzionamenduari
eusteko balore sozialetan. Mendebaldeko gure
kultur hau xenofoboa da, arrazakeria ez zaigu
arrotz egiten; kriminalizatzen diren "arrisku-
taldeen" edo gazte zital bakan batzuen gauza
soila ere ez da. Kontua bestelakoa da: arraza
batek gainerako arrazak suntsitzean oinarritutako
gure bizimoduaren ondorioa dugu arrazakeria.

Hortaz, arrazakeriaren erroa ez dugu ebaki-
tzerik izango, legez kanpoko ekintza bakan bat-
zuk zigortuz. Gure sistemak, batetik, zigortzen
du xenofobia eta, bestetik, jokabide arrazista
erakusten du Atzeritarrekiko legea (L. E.) eta
Babes eta Aterpeari buruzko legea bezalako
xedapen polizial eta baztertzatzaileak indarrean
jarri.

Zesar Manzanos
E.H.U.ko Soziologia irakaslea

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

Pedro Asua, 2 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53



elkartearen babesarekin

5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Zuzendaria: Karlos Etxenausia **Erredakzio-burua:** Ismael
Díaz de Mendibil **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de
Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Susana Calleja, Itziar
Mtze de Santos, Lorea Zurimendi, Miel Anjel Elustondo
Hizkuntz arduraduna: Inaxio Lopez de Arana **Komikia:**
Iñigo Sarasola **Marrakziak:** Aitziber Iriondo **Maketazioa:**
Alex Badillo, Asier Perez de Karkamo **Publizitatea:** Karlos
Fdez. de Betoño **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba
Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Asier Perez de
Karkamo, Lorea Zurimendi **Kolaboratzaileak:** Txipi
Ormaetxea, Oier Zulaika, Xabier Etxaniz, JuanJose
Kastresana, Iñaki Gauna, Txabi Arnal Gil, Mikel Garmendia
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan
adierazitakoen erantzukizunik

IZENA: _____

ABIZENAK: _____

KALEA: _____

Kode Postala: _____

HERRIA: _____

Pisua: _____

ZKIA: _____

Kalea mintzo HIESaz



EZJAKINTASUNA eta segurtasuna urruntasunaren bereizgarri ditugu, elkartasuna eta izua, berriz, hurbiltasunarenak. Ezaugarri horiek guztiak nahasi egiten dira HIESak jotako gaixoen arazoa mahairatzen denean. Gaixotasunak heriotza dakarrenean, bizitzari aurre egitea nekeza da. Egoera larriagotzen da gaixotasunari buruzko mitoak eta ezjakinak gizartearen sektore batzuetan sano errota eta tinkatzen direnean. Edonola ere, hona hemen zenbait kaletarrek auzi horri buruz duen iritzia.

1. Aski al dira HIESak jotakoak bergizarteratzeko eta sendatzeko egiten diren ahaleginak?
2. Begi onez ikusiko al zenuke gaitz horrek kutsatutakoak tratatzeko egoitzaren bat jarriko balute zure auzoan? Zergatik?

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu



EVA BARRIO
langilea

1. Nire ustez, HIESa dutenak bergizarteratzeko ahaleginak oso gutxi izan dira, batez ere, jendeak gaixotasuna oso urrutitik ikusten duelako.

2. Bai, zergatik ez! HIESak jotakoak gainerako gaixoak bezalakoak dira.



BERTSOAK

GAIA:

martxoak 8

EGILEA:

Oihane Perea

DOINUA:

Amodioak nola dakartzan...



**Martxoan
airea gorri
goizero
elur berri**

Sartu ezinik emakumeok
gizonaren gizarte
irtenbideen bila gabiltza
ta gaude bazter batean
Egunen baten akelarrean
entzungo da bapatean
emakumearen irrintzia
kobazuloko atean

Sukalde baten presondegian
eta haurzaintza ezarri
gero neskame baldin bagara
bizi behar gara larri
Berdintasuna bada doai bat
haundi eta bizigarri
horrekin ados ez dagoena
sorgin artera ekarri.

GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK



UBALDO LUIS CALVO
Teknikaria
antolakuntzan

1. Administrazioak eta erakunde pribatuak hartzen dituzten neurriak guztiz alperrikakoak dira. HIESaren ibilia eteteko, erroa moztu egin behar zaio, osasun harremanetatik eta sexualetatik hasita.
2. Ondo ikusiko nuke, nahiz eta gizarteak horrelako neurriak ez onartu. Azkenean, jarrerak orekatu egiten dira.



TXEMA PRECIADO
Irakaslea

1. Kasu askotan, hutsalak dira. Ez dut uste gauza handirik egiten denik. Nik bereiziko nituzke besteen aurrean ondo geratzeko plantak eta benetako ahaleginak.
2. Problema handirik ez nuke ikusiko. Informazio dextente dagoenez, jendea ez da zertan beldurrez egon behar HIESdunen aurrean.



CRISTINA DE LUZ
ikaslea

1. Orain lehen baino egiten den arren, oraindik ez dela aski uste dut.
2. Primeran ikusiko nuke, ados ez daudenak oso berekiak dira eta beren interesak besterik ez dituzte ikusten.



SORAIA ELORTZA
ikaslea

1. Gutxi egiten da, nire ustez. Sinadurak jasotzea ez da aski. HIESdunek gehiago merezi dute.
2. Niri ez litzaidake gaizki irudituko. Beste aldetik, umeentzat arriskutsua izan daiteke. Horregatik, hainbat gurasoren jarrera ulertzen dut.



MICHAEL BARTOLOZZI
itzultzailea

1. Azken urteotako ahaleginei ondo deritzet, askoz informazio gehiago ekarri dutelako, batez ere.
2. Oso ondo, gainera, saiatuko nintzateke lanpostu bat bilatzen bertan. Hiruzpalau arregura gustora hartzen dira, noizean behin.

ODON DE APRAIZ IKASTOLAREN X. URTEMUGA LGO. KULTUR ASTEA



ODON DE APRAIZ IKASTOLA

Nafarroako Erregeak z/g
Tfnoa: 28 42 41
01002 GASTEIZ
P.K. 3071

Martxoak 20

Mahai ingurua ODON DE APRAIZ euskaltzaleari buruz

Parte hartzaileak:

Endrike Knörr, EHUKo irakaslea eta euskaltzaina
Abel Enbeita, bertsolaria
Roberto Barrutia, idazlea
Luis Angel Apraiz, senitartekoa

Moderatzailea:

Patxi Goenaga, EHUKo errektoreordea eta euskaltzaina.

ORDUA: arratsaldeko 7etan

Martxoak 21

Hitzaldia:

Gure ingurunea ezagutu eta zaintzen dugu?

Hizlaria: Joxean Gil-Garcia, ingurunearen aztertzailea.

ORDUA: arratsaldeko 7etan

Martxoak 22

Pailazoak:

Kiki, Koko eta Moko

Arratsaldeko 3etatik 5ak arte

Martxoak 23

Mahai ingurua:

Gaur eguneko Euskararen egoera Araban

Parte hartzaileak:

Xabier Aizpurua, Hizkuntz Aholkularitza eta informaziorako zuzendaria
Carlos Caballero, Jaurilaritzako Kultur Ordezkaria
GEU elkarte
EHE (Euskal Herrian Euskaraz)

Moderatzailea:

Txema Ramirez de la Piscina, EHUKo irakaslea

ORDUA: arratsaldeko 7etan

Martxoak 24

Jaia Ikastolako jolas-tokian

Trikitrixa eta musika talde bat Arabar produktuen dastapena txosnetan Gonbidapena irekia da. Mentzio berezi bat ikasle, Guraso, Irakasle ohi eta auzokideei

Arratsaldeko 7etan bertso saioa

jaia hasi baino lehenago ikastolak bere inguruan eduki dituen euskaltzale guztiak oroitzuz eta nola ez bere izena daraman Odon De Apraiz Euskaltzaileraen oroigarri Joxerra Melgizoren obra bat jarriko dugu

Hitzarmena, **GEU**

elkartearen ekimen berria



Zenbait erakunde eta elkarteren arteko harremanak euskara hutsez bideratzeko itun batera iristea du helburu GEU elkarteak plazaratu berri duen kanpaina berriak; bere izena: Hitzarmena. Otsailaren 1ean hainbat ikastetxe, alderdi politiko, sindikatu... bildu ziren akordio hori sinatzeko eta horren inguruko kanpaina aurrera eramateko asmoz. Gai hori xehetasunez hornitze aldera, GEU elkarteak partaidea den Xabier Galarragarekin hitzegin dugu. Hona hemen berak esandakoa.

ZERTAN DATZA HITZARMENA?

Xabier Galarraga: Hitzarmenaren funtsa hau da: sinatzaile guztiok geure arteko harremanak euskaraz izateko konpromisua hartu dugula. Era berean, erakunde publiko zein probatueta euskara erabiliko dugu. Bestalde, segimendu batzorde bat eratuko dugu hitzartutako horiek betetzen direla ziurtatzeko.

ZEINTZUK DIRA HITZARMENAREN HELBURUAK?

Funtsean, idatzizko harremanak euskaraz normalizatzea. Gainera, euskarazko harreman horiek indartu nahi ditugu bai euskaraz egunero egiten dutenentzat, bai oraindik egiten hasi ez direnentzat bai eta horretarako derrigorra dutenentzat.

NORTZUK SINATU DUZUE HITZARMENA?

Zenbait erakundek, hala nola, alderdi politiko batzuek, sindikatu batzuek, eskola batzuek, zenbait ikastolak eta Gasteizko

“**euskarazko harremanak normalizatu eta indartu nahi ditugu hitzarmenaren bidez**”

euskaltegiek... Bestalde euskaldun eta euskalzale guztiok ere kanpaina horretan parte har dezakegu.



GUREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

J A T E T X E A


Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

NORI ZUZENDUA DAGO KANPAINA?

Bi taldetan banatu ditugu: alde batetik, erakunde publikoak (udalak, diputazioa, gobernua, gobernu zibila...), horiek euskararen legea betetzeko derrigorra baitute; bestaldetik, diru publikoaz finantziaturiko enpresa eta zerbitzu publikoak, horiei ere euskara eta euskaldunenganako errespetua eska diezaiegun. Talde horretakoak ditugu kutzak, telefonika, Amvisa, correos, alderdi politikoak, sindikatuak...

NOLA EGINGO DA KANPAINA?

Otsailaren 22ra arte, sinadurak jasoko ditugu. Gero, martxoaren lehenengo astean aurkezpen ofiziala egingo dugu. Bestalde, pertsona bakoitzak ere pertsonalki kanpaina parte har dezake. Hitzarmenaren lehenengo bi puntuak erakunde sinatzaile eta hala nahi duten norbanako guztion artean beteko genituzke. Hiruga-

“diru publikoaz finantziaturiko enpresa eta zerbitzu publikoei euskara eta euskaldunenganako errespetua eska diezaiegun”



ren eta laugarren puntuak burutzeko pegatina batzuk banatuko dira sinatzaileen artean, eta gaztelera hutsez jasotzen diren idatzi guztien gainean pegatina ezarriko ditugu. Gerora, beren igorlekura bidaliko ditugu. Bestalde, martxoaren hasieran banatuko diren GEU Gasteizko aleetan hamarna pegatina joango dira, hori bera egiteko aukera hala nahi duten



Euskararen idatzizko erabilera bermatzeko hitzarmena

BEHEAN SINATZEN dugun Erakunde eta Elkarte guztiok, Gasteizko euskal emakume eta gizonen hizkuntz eskubideak behar bezala betetzen ez direla ikusirik, eta 1982. urtean Eusko Legebiltzarrak onetsitako Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea abiapuntu izanik, idatzizko komunikazioa euskaraz bermatuko duen Hitzarmena bultzatu eta burutzeko konpromezua adierazi nahi dugu

Hori dela eta, Gasteizen ohi ditugun idatzizko harremanetan euskararen normalkuntza erreala bezain sendoa eta eraginkorra izan dadin, ondoko puntuetan zehazten den urrats irmoa emateko erabakia plazaratzen dugu:

- 1.-** Gaurdanik aurrera, sinatzaileok gure arteko harreman eta komunikazio idatziak euskaraz burutuko ditugu
- 2.-** Orobat, erakunde publiko zein pribatuetara idatziz zuzentzerakoan, euskara erabiliko dugu.
- 3.-** Gorago aipatu Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legearen arabera, gutun, txosten eta idatzizko dokumentaio guztia euskaraz burutzera derrigortuta dauden

erakundeekin izan litezkeen idatzizko harremanetarako euskara izango da guk aukeratuko dugun hizkuntza. Horretarako, uneoro eskura izan ditzakegun bitarteko eta baliabide legal guztiak erabiliko ditugu, besteak beste erdara hutsez datorkeen gutuneria guztia automatikoki jatorrizko erakunde jaulkitzailerara itzultzea.

4.- Halaber, modu berezian bultzatuko da euskararen idatzizko erabilera zerbitzu publiko zabala eskaintzen duten bestelako erakunde eta elkarten artean, bitartekoak aurreko puntuan adierazitakoak izango direlarik.

5.- Era berean, aurreko puntuak egokiro betetzen direla ziurtatzeko sor daitekeen segimendu-batzordean parte hartzeko asmoz gain, beronek behar lituzkeen bitarteko guztiak ahalbidetzeko konpromezu tinkoa agertzen dugu.

GUREKIN EUSKARAZ

★
IZ
TABERNA
RA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

BADA GARAIA !

BI LAN EUSKALDUNONTZAT

- gure artean euskaraz idatzi
- besteei berdin exijitu

nori?

Legea bete behar duten erakunde guztiak: (Euskararen legea 8.2)

- Udaletxea
- Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritzak
- Justizia
- Biltzar Nagusiak
- Legebiltzarra
- Gobernu zibila, militarra
- /.../

Gure diruaz baliatzen eta errespetua zor diguten zerbitzu publikoei:

- Kutxak
- Posta
- Telefonika
- Amvisa
- Iberdrola
- Tuvisa
- Alderdi politikoak
- Sindikatuak
- /.../

hauetako batek gaztelera hutsez bidalitako idatziekin **zer egin?**



ez bota birziklatzera



idatziaren gainean pegatina jarri




atzera bidali:

- postaz: gutunazalean sartu, frankeatu eta ospa!
- faxez

DENOK BATERA...

GUREKIN EUSKARAZ !



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27

Tfnoa: 14 41 95

GASTEIZ

“**gaztelera hutsez jasotako idatzi guztietan pegatina ezarri eta gero, bere igorleari bueltatuko diogu**”

teko, inprimakiak ere euskaraz egiteko modua egon dadin ahaleginduko gara: NAN, gidatzeko karneta...

Susana Calleja & Itziar Mtz de Santos

guztiei eskaintzeko. Hitzarmenaren azken puntua, Segimendu batzordea, alegia, sinatzaileek osatuko lukete. Horren eginkizuna hauxe: kanpaina ebaluatzea eta hurrengo fase bat martxan jartzea.

NOIZ HASIKO DA KANPAINA?

Martxoaren lehenengo astean. Sinadurak prentsurreko batean aurkeztea izango da lehenengo ekitaldia. GEU Gasteiz aldizkariaren bidez ere, kanpainaren berri emango dugu.

ESANGO AL ZENIGUKE ZEINTZUK IZANGO DIREN KANPAINAREN HURRENGO FASEAK?

Beno, kanpainaren lehen fasea arestian azaldutakoa izango da. Bigarren fasean saiaturako gara kaleen euskarazko izendapena lortzen. Horri segida ema-



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka
2 eta 3
☎ 13 24 48
Abastos Azoka
2 eta 3
☎ 26 78 97
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*

**JUANITO
OIZARZABAL**

Nolako idazkera, hala



*Geu Gasteizko laguntza
besarikada handi bat
zurek ere berezteko
gaiturrean zaudete
Juanito
30-3-56*

JUANEN ETA MENDIAREN irudia lotuta agertzen zaizkigu ezinbestean. Dena den, irudi publiko horren atzean eguneroko gizon dugu, eta berarekin batera eguneroko kezak eta ogibide gogorra. Hor ez dago osperik eta bai, aldiz, diru-premiarik. Horiek horrela, mendigoizaletasuna nolabaiteko ihesbide izan du Juanek, eta horren bitartez bere behar kreatiboak bideratu ditu. Izan ere, Juanek kastrazio kreatiboaren sentsazioak jasan ohi du eta horrek etengabeko egonezina sortzen dio. Horregatik, bere sormen-ahalmenak garratzak egundoko garrantzia dauka, eta egin-kizun horretan, ukatu beharrik ez dago, zeharo indibidualista da.

Gogoetak egiteko ahalmena behar bezala garatzeko arazoak dituela esan genezake, hau da, erreflexio-mundua blokeatu egiten zaio behin baino gehiagotan. Saiatu da beldurrak atzean uzten, baina beldur horiei aurre egin ez dien neurrian zama astun bilakatu zaizkio. Beraz, aurrerantz egiten ditu gogoetak lehenaldia eta amaren eragin erabakiorra gain-

1.995-1.996 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULAZIOA ARANTZABELA IKASTOLA

- **EREDUA:** -murgiltze eredua haur erdaldunentzat
-eredu egokitua haur euskaldunentzat
- **ADINA:** -3 urtetik aurrera

EPEA:

Martxoaren
14era arte

INFORMAZIOA:

ARANTZABELA ikastola
Joakin Collar z/g
Tfnoa: 28 60 63
Faxa : 25 39 82



ARANTZABELA
Gasteiz

ko izaera

ditu nahian. Aurrerantzako erreflexioa da berea. Azken finean, bitxia bada ere, ihesbide horretan bere burua topatzen du, hor goian dagoenean aurrez urre agertzen baitzaizkio atzean utzitako mamuak. Horregatik, berak dioen bezala, mendia jainko bihurtzen da, jainkoa ezagutzaren isla den aldetik. Juanek muturreko egoerak behar ditu bere burua ezagutu ahal izateko eta hori da orain arte egin duena. Kontuan izan behar dugu Juan baino Juanito daukagula, hots, gizon gaztea, bere adinak adierazten diguna baino askozaz gazteago. Halere, somatzen dut laster heldutasun-maila berri bati ekingo diola eta horrekin batera baliteke mendigoizaletasuna alde batera uztea, orain arte ulertu duen bezala behintzat. Horrela gertatu arren, ez dut uste problema handiegirik izango dituenik, bizitzaren beharrei egokitzen trebea baita.

Juanito, pertsona sana dugu, harroa, jennio bizikoa eta gizon gizona, "gizonegia" agian. Hau da, emakumeen sentsibilitatea perzibitzearen garrantziaz ahazten den horietakoa. Erantzukizun handiak gain hartzeko gaitasun aparta dauka, buruan egon eta liderra izatea bereziki gustokoa dauka eta doaia dauka horretarako. Asmo eta erronka handiak bizitzaren saltsa dira eta horretarako ausardiarik ez zaio falta. Inteligentzia edo talento berezia dauka. Horri esker nahiko erraz lortzen ditu bere helburuak eta esperientzia eta ezaguera berriak bereganatzen ditu. Dena den, talento hori besteren onerako erabili behar du horren fruituak benetan emankorrak izan daitezen.

Eta bukatzeko, suerte ona opa nahi nion gure Juanitori, baina behar ez duelakoan nago, izar ona baino hobeagoa baitauka. Hori bai aingeru jagolea!

Iñaki Gauna

ZURRUMURRUAK

GAINBEHERA ETORRITAKOA

ZER GERTATZEN zaigu gure herrialde historiko eta paregabe honetan? Nork ukatu diezaioke Arabari bere izaera Euskalduna? Nork bereizi bere beste sei anaiengandik? Baditu berezitasunak bai, baina ez bere sustrai-etan, oinarrietan, berezitasun fisikoak baizik. Horiok Herrialde bakoitzak ditu eta behar ditu, Euskal Herri osoa aberastu egiten baitute. Sorreran, ordea, hizkuntza, kultura eta arraza bera ere, baliabide amankomunak izan dituzte.

Gaur egun, bakoitzaren kokagune bereziari dagokionez edo kanpotar inbasioaren indar desberdinen arabera, kinka ezberdinetan azaltzen zaizkigu. Horregatik, ordea, ezin dezakegu bere benetako historia ahaztu edo bazterrean utzi.

Arabako Batzar Nagusietan gertatzen ari denak, ordea, lotsa eta amorrua sortaraz dezake. Nola ulertu euskara berreskuratzeko bidean genituen laguntzak, lehen hain eskasak, murriztea? Nola Herrialdearen izandakoaz ahaztuz edo ukatuz, gaurko egoera soilik aztertzea? Eta are gehiago azterketa, hizkuntza minorizatu, batipat Euskararen etsaierik handienetarikoa baten esku uztea? Euskal herritarra ez den baten eskuetan? Nola, Arabako Foru Aldundia sortzaileetako bat izanik, Euskaltzaindiaren aholkuak ukatu? Nola Juan Bautista Gamiz, Raimundo Olabide, P. Ignazio Barrutia, Odon de Apraiz... eta beste hainbat eta hainbat arabar euskal idazle ospetsu baztertu? Hori bai! hau guztia onartu dutena Mateo Benigno de Morazaren giza-



irudiaren ondoan fotografiatu dira... Ez dut sinetsi nahi Euskal Herriko Foru eta euskararen defendatzaile sutsu eta handi hura ezagutzen zutenik... Lotsa behar lukete bestela.

Euskal Herriatik kanpo etorritako mesiaz funtsik gabeko hauek beldurtu ez ote direlakoan nago. Beldurtu herrialde honetan azken urteotan izan den euskararen gorakada baieztatzean. A ereduaren beherakada eta B eta batez ere D ereduaren gorakada frogatzean.

Ez al ziren konturatu Urtarrilaren 28ko manifestaldi jendetsuaren oihuez? Egun hartan, Gasteiztar emakume heldu eta euskaldun berri batek hala esan zidan: "Abel, baina beraien herrietan ezer egiteko kapazak izan ez edo herrietatik bialdutako hauek zer irakatsi behar digute? Zer irakatsi gainbehera etorritako galego harroputz batek?" Hausnartzekoa, benetan!

Abel Enbeita

Ederki

argazki estudioa

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komunikioak, bataioak

Estudioko argazkiak

Bideo industrialak

Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24

Tfnoa: 26 06 58

Portal del Rey, 21

Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA

ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

Txoko honetan aurkitzen dituzuen pertsonaiak bi gauza dute amankomun: gasteizen bizi eta euskaldunak dira. Bi ezaugarri hauexek betetzen ez badituzu, eros ezazu pisua berton, eta apunta zaitez euskaltegira. Halere, ez dizugu ezer prometitzen.

Kontxi Alonso



ZAMORAKO herri txiki batean jaio zen, "Bercianos de Valverde", eta Zumarragan hazi. "8 urterekin edo Zumarragara etorri ginen". 1.960an sortu da, Abuztuaren 2an. "Orain dela 34 urte". Leo da horoskopoz. "Irakurtzen dut baina ez dut sinesten". Barre egiteko, beharbada. Gasteizen bizi da. "HABEn hasi nintzenetik, sei urte edo". Lanak ekarri du hona, beraz. Lakua du auzo Kontxik baina ez dago bertako berri emateko moduan. "Ideiarik ere ez. Ez dut asko ezagutzen. Bakarrik noa lo egitera; auzoan ez nago asko, ez". Erdipurdiko gasteiztarra da. Ez ditu asteburu guztiak ere bertan ematen. "Asteburu bat hemen eta bestea Zumarragan. Zumarragara ez banoa gurasoak haserratsen dira". Donostian ikasi zuen euskaraz. Majisterio ikasten ari zela ekin

zion, eta nahiko neke gertatu zitzaion, zail. "Hasieran bai. Jalgi Hadi metodoarekin...ez nuen tutik ere ulertzen. Zaila da, batez ere hitzegitea. Gramatika ikastea ez, baina hitzegitea bai". HABEren ikuskatzailatzan egiten du lan eta euskaraz bizi da. "Suerte handia izan dut. EGA atera nuenetik, aurkitu ditudan lan guztietan euskaraz hitzegin izan behar dut". Ez ei du afizio erabatekorik. Joera batzuk bai, hala ere. "Irakurtzea, musika entzutea eta telebista". Goazen banaka. Liburuak: "Nobelak, batez ere erdaraz". Musika: "Musika klasikoa, opera...". Telebista: "Edozer gauza, konkurtsoak aparte. Pelikulak".

ZEIN DUZU BIZIARIK HANDIENA?
Alferkeria.

ETA BERTUTEA?
Bertuterik ez daukat nik.

FAMATU ADISKIDE BATEN IZENA?
Ez daukat.

ZER ESKATZEN DU HERRIAK?
Bakea, lana, ondo bizitzea, lasai egotea... Herrikoa naizen aldetik hori eskatuko nuke.

ZER ESKATZEN DIOZU ZUK BIZITZARI?
Lasaitasuna.

ETA ESKAINI?



HEGOALDE
euskaltegia

**florida kalea 58,
behea
tfnoa 28 41 96
01005 GASTEIZ**

Eskaini? Ezer ez.

**GASTEIZ, VITORIA, GASTEIZ-VITORIA
ALA VITORIA-GASTEIZ?**
Vitoria-Gasteiz.

JENIORIK BADUZU?

Bai. Lanean nagoenean lanekoek esaten didate jenio txarra daukadala.

ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?
Gauza askok...

**ZEIN DUZU MOMENTUKO KEZKARIK
HANDIENA?**

Ea anaiak lana aurkitzen duen. Nirekin bizi da.

GEU ELKARTEA EZAGUTZEN DUZU?

Bai, aldizkariaren bidez. Baliagarria da Elkartea.

EGUNKARIEN BAT?

Erosi bat ere ez. Irakurtzen dut "El Mundo", lankide batek erosten dutelako.

TELEBISTA PROGRAMARIK?

Pelikulak, mota guztietakoak.

OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Etxean, Gasteizen. Deskantsatzeko.

ETXEKO LANAK NORK?

Nire etxean, nik. Jeneralean, bikotearen egoeraren arabera izango da, ez?.

NONGO EUSKARA DUZU?

Euskaldun berria naiz, beraz, nire euskarak ez du doinurik; egia da.

JAKI GOXOREN BAT?

Pastelak; guztiak. Txokolatea... hartzekoa, bonboiak, trufak, txokolatzeko pastelak...



FILMEREN BAT?

"Amadeus". Ikusi nuenean izugarri gustatzen zitzaidan; 85ean edo. Geroztik hasi nintzen musika klasikoarekin afizionatzen.

**AKTORE IZENIK, GIZONEZKO NAHIZ
EMAKUMEZKOA?**

Kevin Costner eta Bette Davis edo Anjelica Huston.

TXIKITAKO OROITZAPEN EDERRIK?

Ez.

ZEURE GORPUTZ-ATALIK POLITENA?

Bat ere ez.

AMETSIK BAI, ILUSIO HANDIREN BAT?

Gustatuko litzaidake "La Flauta Májica" opera ikustea zuzenean.

**GIZARTE ARLOAN ZER ALDATUKO
ZENUKE?**

Solidaritate falta dago. Gauza txarrak Rwandan edo, Bosnian edo, gertatzen

direnean jendea prest dago laguntzeko baina hurbilago daukan gauzetan, ez. Eta nik ez dut esaten Etiopiari edo Rwandari laguntzea gaizki dagoenik baina hurbilago daudenei ez zaie laguntzen. Ez dakit zergatik.

**MUNDUAN DEN DENBORA GUZTIA
IZANEZ GERO, ZER EGINGO ZENUKE?**
NORA JOANGO ZINATEKE?

Ez nuke nahi izango.

**LIBURU GOMENDAGARRIREN BAT,
IDAZLEREN BAT?**

"La Regenta". Idazlerik? Valladolideko hori... Miguel Delibes.

IDOLOREN BAT?

Bernard Hinault. Bere ondoren... ikusiko dugu. Ez naiz ibiltzen bila, idolo bat non aurkituko. Egun batean agertzen bada...

ZEIN DA ZURE BARRUKO MOTORRA?

**ZER DA EGUNERO BIZITZEKO GOGOA
EMATEN DIZUNA?**

Bizi naiz irauteko, besterik ez. Tristea? Izango da!

**ZER NAHIKO ZENUKE JENDEAK ZUTAZ
ESATEA, ZU HIL ETA GERO?**

Txarrik ez esatea, behintzat.

ETA BIZI ZARELA?

Lagun ona naizela.

**ZEIN DA ZURE MAITASUN EGOERA? NON
DUZU EZKUTUKO ADISKIDEA?**

Inon ez. Nire maitasun egoera, tristea; eta ez dut ezer egiten hortik ateratzeko. Lasai nago.

Miel Anjel Elustondo

ALDA EZAZU BIKOTEA HILABETERO



EROSOAGOA DA ETA

MULTILENS botatzeko lenteak

Ukipen lenteen abantail guztiak eta hilabetero berriak jatzeko erosotasuna.

Erabili... eta bota. Horren erraza. Eta horregatik, beti ikusmen bikaina, ixurkari bakar bat eta begientzat ziurtasun osoa.

**Eta ez dira lentixka arruntak
baino garestiagoak!**

MULTILENS botatzeko lenteak:
Erosotasuna ez baita botatzekoa.

6 LENTIXKETAKO
KUTXATILA:
BAKARRIK 6.000 PTA.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



Umeak zaintzen ditugu

GOIZEZ

Beatriz	22 61 18
Iholdi	14 45 91
Nekane	26 91 53
Eduardo	14 21 99

ARRATSALDEZ

Oihana	25 30 35
Imma	24 22 41
Rafa	25 22 68

GAUEZ

Esther	27 84 57
Imma	24 22 41
Iholdi	14 45 91

ASTEBURUETAN

Olatz	25 61 20
Jose Angel	27 62 41
Saida	26 58 05

Zeu ere haurrak
zaintzeko prest baldin
bazaude, deitu ezazu
22 21 53 telefonora edo
idatzi 1691
postakutxara.

Beroarena kenduta

LOS PICHONES taldea 90an jaio zen Arrasaten. Duela gutxi kaleratu dute euren estraineko maketa? "Beroarena kenduta", hain zuzen. Zazpi abestik osatzen dute zinta. Dozena erdi pasatxo abesti horien artean ez duzu oso kanta erakargarrik entzungo. Egia esan, entzunaldi bakar bat baino gehixeago beharko duzu. Orduan bai!, orduan erakargarri bihurtuko dira. "Gezurrez" edota "Frentetik eskutitz bat" aipa ditzakegu. Hala ere, hauek direla abesti erakargarrienak esango bagenu ez genioke maketari behar besteko justiziarik egingo. Ezin da lana zatitu. Halabeharrez bere osotasunean hartu behar da.

Nola gertatu zen? Azaro partean lau lagun bildu eta abestiei itxura berria ematea erabaki zuten Asmo horiekin Arrasateko SHOT estudioetara abiatu ziren. Ez zegoen presa handirik. Bi asteren buruan, lasaitasun osoz, grabaketa kaleratu zuten. Ez zen hura bere hasierako asmoa. Oso bestelakoa zen euren intentzioa: euren musika aztertu, akatsak zuzendu, euren balioa neurtu, aurrerabideak finkatu. Hori guztia ondo bete zuten. Lana, hala ere, ez zen horretan geratu. Lagunak, entzun ondoren, taldeari animoak ematen hasi zitzaizkion: baietz, ona zela, merezi zuela, Euskal Herriko musika arloan leku bat eduki zezaketela, baietz eta baietz... Azkenean baietza eman behar! Hau honela, gabonetan, "Beroarena kenduta" kaleratu zuten.

Arrasate inguruan harrera ona izan dute. Hortik kanpo ez da apenas banatu.



Nortzuk diren Los Pichones? Izen bitxia benetan! Zer dira? berri-berriak edota musikan arituak? Denetarik dugu. RIP taldean ibili zen gitarrajolea -Yul- Los Albertos taldearen bateria izandakoa -Iñaki- (hauek Catalunyako Rock-accio lehiaketa irabazi eta disko bat grabatu zuten). Baita musikara jaio berriak ere: Iñaki -baxua- eta Txema -abotsa eta gitarra-.

Rock and Roll egiten dute, rock indartsua. Gitarra zorrotza darabilte, errito gordinak, ahotsa hautsia. Ez dute kanpoko eragin garbirik: hau dastatu, bestea hartu... "Los Pichones" dira Aukera gutxi izan dugu zuzenean ikusteko. Udan izango dugu horretarako parada.

Hona hemen, bada, maketa. Diseinu ederra eta soinu bikaina. Gainera, lankidetzaz inportanteak dituzte: Karlos Agirreurreta (Mahoma) eta Jabi Arizabaleta koruetan, Daniel Goikolearen letrak eta Goio Arana diseinuan.

Emaizta zein aurkezpene ezin hobea!

Jose Mari-Txabi Arnal Gil

IRUSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoc: 23 19 33
GASTEIZ



**IRUNA
TABERNA**
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoc: 26 58 52
GASTEIZ

korrika

euskararen aldeko maratoia



Martxoaren azken egunetan, udaberriko haizearekin batera, euskararen aldeko maratoia Gasteizera hurbilduko zaigu: Korrikaz ari gara, jakina. Aurten gure hirian amaituko da 2.150 kilometro egin eta gero. Udaberriak bezalaxe, haize freskoa eta garbia ekarriko digu korrikak. Hori gutxi balitz, mezu gardena eramango du besapean: "Jalgi hadi euskaraz". Martxoaren 26an, gasteiztarrok maratoki horretako protagonista bihurtuko gara egun batez, hemen ere, Euskal Herriko leku askotan bezalaxe, euskara bizirik dagoela adierazteko.

**zure euskal
LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

deportivos

AZOKA

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34
Gorbea 27
Ariznabarra 17

tfnoa: 24 75 04
tfnoa: 24 22 05
tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

“Guztion parte hartzea funtsezkoa da KORRIKAN”

“Jalgi Hadi Euskaraz” leloarekin bide eginez, Euskal Herri osora zabalduko da korrikaren 9. ekitaldia. Martxoaren 17an Nafarroa Beherako Garazitik abiatuko da eta hile bereko 26an Gasteizera iritsiko, eta hemen amaiera emango diogu aurtengo edizioari. Bederatzi egunetan Euskal Herri osoa zeharkatuko du korrikak euskararen alde apustua egin behar dugula zabalduz. AEKk, bere aldetik, euskaltzale guztioi bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzen digu.

“Korrika 9. edizioa mezu zehatz batekin dator: Beñat Etxeparek duela 450 urte idatzi zuena, hain zuzen ere, “euskara jalgi hadi plazara, dantzara, ... mundura”. Horixe da guk azpimarratu nahi duguna.

Euskara bizirik dago eta erabili egin behar dugu”, esan du Aitziber Iriondok Gasteizko Korrika 9.eko arduradunak.

Duela hamabost urte, korrikaren lehenengo edizioa aurreneko kilometroa Eli Galdosek egin zuen Oñatin. Orduko lema: “Bai euskarari”. Korrikak lehengo helburu bera du: euskara bizirik dagoela azpimarratzea, eta, bide batez, euskararen aldeko diru-laguntza bat lortzea.

Aurtengo omenaldia

Korrikaren lehenengo edizio guztietan euskaltzale ezagun bati omenaldia egiten zaio. 1989an, 6. korrikan, Joxe Miel Barandiaran omendu zuten. Orain dela bi urte, oster, Euskaldunen Egunkariako Administrazio Kontseiluko lehendakaria den Martin Ugalde izan zen omendua. Aurtengoa, Mikel Laboa abeslariari egotikuko zaio ohore hori. Horretarako, AEKk argitaratuko du kantari ospetsu horren bizitzari buruzko liburu bat. Omenaldiak omenaldi eta liburuak liburu, korrikaren benetako, protagonistek ez dute ez izenik ez deiturarik. Izan ere ekitaldiak ez luke inolako arrakastarik milaka lagun kirol arropa jantzirik lasterka ibili ezean.

Ospakizunarekin batera, hamaikak txo jai eta kultur ekitaldi antolatzen ditu AEKk, hala nola, rock kontzertuak, bertso saioak, mahai inguruak, erakusketak, hitzaldiak, jaialdiak...

Gasteiz, atsedun gunea 2.150 kilometroren ondoren

Aurtengo Korrika berezia izango da gasteiztar guztientzat, Gasteizek agurra emango baitio aurtengo edizioari. Martxoaren 26an gure hirira iritsiko da 2.150 km egin ondoren.

Goizeko 10ak eta laurdenetan Gamarran sartuko da eta gero, hiru orduz ibiliko da hirian zehar, kalerik kale, zokorik zoko. Eguerdiko ordu batean Gasteizen erdialdean helmugaratuko da. Ordurako, jaialdia hasita egongo da. Hori eta beste zenbait endredo medio, aurtengo korrika bideratzeko lana ez da erraza izango Gasteizko antolatzaileentzat. Gainera, aurtengoa ez da samurra izango aurreko edizioak eskuratu zuen arrakasta gainditzea, Bilboko Erakustazokan antolatutako jaialdiak goia jo baitzuen.

“Martxoaren 18an Mikel Laboa Principal Antzokian izango da”

Zergatik Gasteizen

Gasteizko AEKko irakasleek hasiera-hasieratik proposatua zuten gure hiria, korrika bukaerako ekitaldia hartzeko, Donostia edo Bilbo aukeratu baitute beti horretarako. “Betidanik gogoia izan dugu Korrika Gasteizen bukatzeko. Hala nahi eta hala eskatu dugu, hemengo egoera bereziagatik, bai eta azken aldi honetan euskara jasotzen ari den erasoagatik. Korrikaren mezua zabaldu nahi dugu batez ere. Jendeak ikusi behar du hemen, Gasteizen, euskararen aldeko jarrera badagola. Euskararen beharra azpimarratu nahi dugu”, adierazi digu Aitziber Iriondok Gasteizko 9. Korrikaren arduradunak.

Korrikak iraungo duen bitartean, gure hiriaren garrantzia nabaria izango da. Esaterako, martxoaren 18an, Korrika kulturalaren barruan, Mikel Laboa abeslariak ekitaldi bat eskainiko du Printzipal Antzokian. Izan ere, kantari gipuzkoarrak jasoko du aurtengo omenaldia. Halere, horren osagarri edo, “Mikel Laboaren kantaldiaren aurretik,



axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



MIKO

izozkiak

beste jaitxo bat egingo dugu, beharbada", esan digu Aitziber Iriondok.

Jalgi Hadi Euskaraz! Azken jaia

Benetako jaia martxoaren 26an izango da eta gasteiztarron ahalegin guztiak ezinbestekoak izango dira, korrikari amaiera paregabea emateko, Aitziberrek azaldu digunez. Azken orduko aldaketarik suertatu ezean, hauexek izango dira

ekitaldi horretan: Eskixu, Su ta Gar, Sorotan Bele, Txatanuga Futz Band, Tumbadito, Maixa, Itziar eta Garbiñe, Trabuko eta Erramun Martinikorena. Horiek ezezik, txalapartariak, bertsolariak, trikitilariak, zarpantzararak, artisau erakusketa, txiste kontalariak, herri bazkaria, larrain dantza, talogileak eta txiki-entzako Super Bat lehiaketa izango ditugu denon gozagarri. Ekitaldi horiek guztiak Gasteizko erdialdean burutuko dira.

Korrika txikia

Haurrek ere badute lekuri Korrikan; Gasteizko Korrika txikia Martxoaren 17an ospatuko da. Arana auzoko euskaltegia, arratsaldeko 3:30etan, emango zaio hasiera 5 kilometrotako lasterketatxoari. Umetxoek lekuko berezia eramango dute, dortsalak ere haiek egingo dituzte. Enparantza berrira helduta, hasiko da jaia: txontxongiloak, hankapaluak, jolasak... □

MIKEL LABOA: "Hizkuntza bakoitzak bere nortasuna du"

PRINTZIPAL ANTZOKIA dotore eta apain jantziko da martxoaren 18an. Izan ere, Mikel Laboa Gasteizerraino hurbilduko da bere musika eta sentsibilitateaz gozatzeko aukera emango digula. Kontzertua Korrikaren ospakizunaren barruan dago. Dena dela, ez da kasualitatea punta-puntako abeslari hori Korrikaren inguruko ekitaldi bateko protagonista izatea; berak jasoko du aurtengo edizioari dago-kion omenaldia. Printzipal Antzokiak bete-beterik hartuko du gipuzkoarra, dudarik gabe. GEU GASTEIZek berarekin hitz egin du ekitaldiaren berri izan bezain laster.

ZURE JARRERA BETI KORRIKAREN ALDEKOA IZAN DA. HORI DELA ETA, KORRIKAREN AURREKO EDIZIOETAN PARTE HARTU DUZU. ZERGATIK?

Korrika sinbolikoa da, euskararen aldeko konstatazioa, hain zuzen ere. Hain inportantea den euskarak aurrera egin dezan, beti da garrantzitsua hemen gure hizkuntza bizirik dagoela esatea. Testimoniala izan arren, badu zentzurik. Baina, beste gauzak batzuk ere beharrezkoak dira.

AURTENGO KORRIKAREN LELOA "JALGI HADI EUSKARAZ" DA. HORREK ZER ESAN NAHI DU, ZURE USTEZ?

Hizkuntza guztiek garrantzia dute, txikiak nahiz haundiak izan. Bakoitzak dauka bere egitura eta bere adierazkortasuna. Gainerako hizkuntzetatik bereizten

duten ezberdintasunetan dago hizkuntz bakoitzaren aberastasuna. Hori ez galtzea oso garrantzitsua da. Horrexegaitik, nahiago dut ingelesa edo txinoera, esperantoa baino. Hizkuntza bakoitzak du bere nortasuna, herri baten adierazpena dena.

AURTENGO KORRIKAREN OMENA ZUK JASOKO DUZU. ZER DA HORI ZURETZAT?

M.L.: Korrikaren edizio guztietan euskal kulturaren munduko pertsona bat hautatzen dute AEKkoek, berari omenaldia egiteko. Aurten niri esan didate, eta pozik nago horregatik, baina nik uste dut euskaldun askok nik baino hobeto merezi dutela hori. Orain dela bi urte, Euskaldunen Egunkariako Martin Ugalde izan zen omendua. Omenaldiarena ondo dago, baina hala ere, euskaltzale asko ez dira ezagunak eta oso inportanteak dira, halere.

MARTXOAREN 4AN, KORRIKA ABIATZEKOTAN IZANGO DELA, ZURE BIZITZARI BURUZKO LIBURU BAT ARGITARATUKO DA. ZERTAZ ARI DA LIBURUA?

Liburua biografikoa izateaz gain, nik idatzitako artikulua eta kanta batzuen letrak ere badira bertan. Ikusiku dugu nola hartzen duen jendeak liburua. Liburuaren ingurukoa oso polita izan da. Zumetak eta Jose Luis Argotek parte hartu dute bertan. Argazkiak ere badakartza.

KORRIKA GASTEIZEN BUKATUKO DA. ZER DERITZOKU HORRI?



Oso ondo, eta horren inguruko ekitaldien artean dago Printzipal Antzokian egingo dudan kantaldia. Arabari aurten tokatu zaio eta hori garrantzitsua da, nire ustez. Egia esan, Araba ez da oso ezaguna euskaldunen artean. Aitzitik, euskaldun jendea Arabara hurbiltzen ari da azken bolada honetan, lehen Zuberoarekin gertatzen zen bezalaxe. Kantagintzan gabiltzanok gehiago ezagutzen dugu Araba, hala ere, oraindik hobeto ezagutu nahi dut nik, eta ez Gasteiz bakarrik, Araba osoa ere bai. Eta hori ez diot, jakina, lausengatzeagatik. Arabako herri batzuetan egon naiz kantatzen, hala nola, Kanpetzun, Araian, Arabako Errioxan. Araba oso ederra da, oso aberatsa. □

Benito
liburudenda
Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51
ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ
Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu
GASTEIZ
INPRIMATEGIA

martxoak 8 egunero!



Sentsibiltate berezia egon ohi da martxoaren 8aren inguruan. Badirudi, egun horretan, emakumeen arazoak inoiz baino ageriago daudela. Emakumeek unibertsitatean, lanean, familian eta kalean dituzten arazoak denek ulertzen dituztela ematen du egun horretako hizketaldi guztiak adituta. Begi bistakoa da, bestalde, oraindik ere, emakumeek bazterkeria jasaten dutela martxoaren 8a nahiz azaroaren 20a izan. Nekazaritza-guneetan egoera hori larriagotu egiten da.



eta guztiz ere, bera da gure nekazaritza-inguruen etorkizuna eratzeke ardatza. Gainera, ez dugu ahaztu behar nekazaritzak gure herrian duen garrantzia.

Arabako eskualde guztien produkzioaren %10a baino zertxobait gehiago osatzen du nekazaritzak; Mendialdean eta Gorbeialdean, berriz, %50ra baino gorago iristen da portzentaia hori. Arabako herrietako emakumeen bizitzak eta lanak ez dute Euskal Herriko beste emakume nekazarienekin zerikusi handirik; desberdintasun horren gakoa nekazaritza-

ereduan datza. Leku bateko zein besteko arazoak, aldiz, berberak dira.

Arabako soroak nahikoa handiak izaten dira eskuarki. Hori dela eta, nekazariak ezin dute esku hutsez ihardun. Beraien lanari aurre egiteko, ohizko lanabesak ezezik, teknologia modernoa ere erabiltzeari lotu behar izan zaizkio. Tradizionalki, etxe ondoko baratzean aritzea eta ikuiluko animaliak zaintzea izan dira emakumearen ardura peko. Eskuz egin beharreko lanik gogorrenak ere emakumeak hartu behar izaten ditu bere gain, hala nola, mahats edota patata biltzea.

GIZONARENGAN

oinarritutako gizarte baten pentsamoldean eta kulturaren bizi gara. Hori horrela, gure herrietako emakumeek diskriminazio bikoitza pairatzen dute, batetik, emakumea eta, bestetik, nekazaria baitugu. Hala

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta
oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak*

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobe **Kutxileria 23**

Dena den, lana ez da emakumeen gaitzik handiena. Ezkontzerakoan, senarraren etxera bizitzera joan ohi da herrietako emakumea eta, bere amaginarreba txisteetako sorgina ez izan arren, hori baino askoz ere erosoagoa ez da izaten egoera. Familia berrian izan behar duen lekuaren bila hasten dela, makina bat eginkizun eta lanbide aurkitzen du bidean, bapatean, zerutik erorita bezala; guraso zaharren erizain, haurren irakasle, bere senarraren lagun eta etxeko guztien sukaldari eta neskame bihurtzen da normalean.

Ez dugu ahaztu behar, bestalde, emakumeak (amak, amamak) izan direla herrien tradizioei eutsi dietenak (beste batzuen artean, gure herriko hizkuntza, euskara).

Herrietako bizi-baldintza gogorak izan ohi dira. Horregatik, kaleko bizimodua oso erakargarria egiten zaie baserritarrei. Tradizionalki, gizonak zailago izan dute

baserritik hirirako bidea. Hori dela eta, askoz gizon gehiago daude gure inguruko baserrietan emakumeak baino. Esan gabe doa, horrek hamaika arazo dakarrela: populazio jaitsiera, isolamendua, bakardadea,...

Etorkizunerako proiektuaren ardatza.

Halere, emakumeak aspaldi loturik daude beren lana benetan baloratuta izateko borrokari. Orain arte, oztopo handiak izan dituzte bide horretan eta, traba guztiak oraindik gaintitu ez badira ere, aurrerapauso garrantzitsuak egin dira.

Herrietako emakumeek haxe eskatzen dute oihu bizian: beren lana ofizialki errekonozituta izan dadin. Betidanik, gizonak eman du izena Gizarte Segurantzari. Berak izan ditu, beraz, eskubide guztiak. Emakumeak lan berdina egin arren, itzalean egon da beti. Hortik arazo larriak etorri zaizkio emakumeari, gaixo-

tu, alargun geratu edota jubilatuz gero. Gizarte Segurantzak ere ez du inolako erraztasunik ematen: orain arte izena bertan ematea lortu duten emakumeek zeharkako bideak (nolabaiteko azpikoak) erabili behar izan dituzte beren eskubideak lortzeko. Eskubide horiek aldarrikatzeko plataforma eratu zen lehenengo hilabetean, Estatuko emakume nekazariak Gaztelun (Gipuzkoa) egindako Topaketetan, hain zuzen. Oztopo eta zailtasun guztien gainetik, nekazaritza bultzatzeko bide berri guztiek funtseko dute emakumearen papera: nekazaritza-turismo etxeak, aurrez aurreko salmentak, kalitatezko produktu bereziek...

Leire Lopez de Aberasturi



ekitaldi bereziak antolatu dituzte Egizane eta Emakumeen Asanbladak.

Landatxon martxoaren 4ean egingo den jaialdiaren bidez, hasiera emango die Egizane emakumearen nazioarteko eguna ospatzeko ekitaldiei. Geroago, martxoaren 6an eta 7an, Plazandreek eta Carmen Elejalderen hitzaldiak egingo dira Villa Suson arratsaldeko 7,30etan, Emakumeen Asanbladak antolatutako. Martxoaren 8an, emakumeen talde guztiek deitutako manifestazioa izango da zita nagusia: San Anton plaza izango du abiapuntua arratsaldeko 8etan. Ekitaldien atala amaitzeko, Egizane martxoaren 14rako prestatu duen hitzaldia: Nati Abriale mintzatuko zaigu emakumeak komunikabideetan duen irudiari buruz.

GUZTION ARAZOA

IRAGAN URTARRILAREN 28an, Gasteizko Jose Mardones ikastetxeko jolas tokian, hiru gazte saiatsu ziren neska bat bortxatzen, beste hiru mutil, ezer egin gabe, begira ari ziren bitartean. Jodie Fosterrek antzeztutako "Acusados" izeneko filmetik ateratako pasarte bat eman dezake baina, ez da horrela, zoritxarrez. Horixe izan da, dudarik gabe, azken hilabeteotan gure artea gehien asaldatu duen eraso sexuala. Auzi hori oraindik ez dago itxita, eta bazter bat baino gehiago nahastuko du aurrerantzean ere, epea edonolako izanda ere. Aurtengo urtea hasi denetik ia aste-buruoro salatu izan dira horrelako ekintzak Gasteizen: 10 sexu-eraso baino gehiago gertatu dira hilabete eta erdian.

Emakumeen taldeek martxoaren 8aren egitaraua prestatzen ari zirela, Jose Mardones ikastetxeko eraso gertatu zen. "Horrek eguna derrigorrez baldintzatuko

duela", azaldu du Gasteizko Emakumeen Asanbladako kide den Milak. Egizane talde feministako Edurnek, berriz, hau esan du: "Emakumearen nazioarteko egunerako prestatu dugun leloa euskal feminismoa bultzatzeko egiten ari garen lanaz arituko da". Antza, erasoei buruzko kanpaina berezia eginga dute lehenago.

Egizane eta Emakumeen Asanblada bat datoz arazoari eman behar zaion erantzunari buruz hitz egiteko orduan: "Gartzela ez da irtenbidea, hori argi dago, baino erasotzaileak kaletik ateratzeko lehentasuna izan behar du, gero sikiatza eta psikologoak egin beharko dute lana".

Biek, Milak eta Edurnek, lana egunero egin behar dela azpimarratu dute. Hala ere, martxoaren 8aren inguruan egoten den giro eta sentsibiltate berezia aprobetxatzeko,




GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

Tolerantziaren izenean Araban



eskariari erantzunez. Dena dela, aitortu beharrekoa da hainbat langile ahalegin benetan handiak egiten ari direla euskara ikasteko, eta horregatik gure ustez Administrazioak behar bezala hartu beharko luke aintzat ahalegin horien balioa funtzionarioak euskalduntzeko plangintzan.

Hizkuntz tolerantzia

Beharrezkoa da hizkuntzaren gaia ahalik eta sentiberatasunik handienaz erabiltzea borroka politikoetatik urruntzeko. Argi utzi nahi dugu euskarak berez ez duela inolako ideologiarik edo alderdirik, eta horregatik gaitzestekoa iruditzen zaigu alderdi politikoak gure hizkuntzaz baliatzea beren arteko ulertuezin ideologikoa areagotu eta gizarte osora zabaltzeko.

Arabako bi hizkuntzen alde gaude, gure ustez elebitasunaren bidetik gizarte kohesionatuagoa eta zuzenagoa lortuko dugulako; horregatik, tristeak eta kezkarriak iruditzen zaizkigu euskararen alde zein kontra egin diren adierazpen intoleranteak beti ere euskari berari egiten diotelako kalte.

Euskara, Arabako hizkuntza eta arabarren eskubidea.

Euskara gaur egun ere Arabako hizkuntzetako bat da eta, beraz, hainbat arabarren hizkuntza; horregatik, hiritar euskaldu-

nek eskubide osoa dute beren hizkuntza bizitza publiko eta pribatuko alor guztietan erabiltzeko. Hori dela eta, erakunde publikoek politika egoki bati ekin behar diote euskara sustatzeko eta eskubide hori betetzen laguntzeko.

Euskaldunen eskubidea mugatuta dago.

Arabaren euskaldunak dira beren hizkuntza normaltasunez erabili ezin duenak gizarte-bizitzako esparru gehientsuenetan. Eskubide hori guztiz mugatuta dago beraz.

Hizkuntz politika berraztertu

Orain arte administrazio publikoan abian jarri diren hizkuntz politika eta egitarauak nagusiki euskalduntzera bideratuta egon dira, ia erabat ahaztuta utziz jadanik euskaldun den biztanlegoak euskara erabiltzeko dituen eskubideak. Ildo horretatik, egia da "berraztertu" beharko litzatekeela hizkuntz politika hori, Arabako biztanle euskaldunen behar eta nahiei benetan eta zein neurritan erantzuten ote dien ikusteko. Beharrezkoa da, noski, orain arte erabilitako hizkuntz politikaz gogoetatzea, egindako ahaleginen etekina eta eragin-kortasuna behar bezalakoak izan ote diren ikusteko, egindako okerrak eta hutsuneak zuzentzeko eta oraingo eta etorkizun hurbileko beharretara moldatzeko, baina ez inondik ere,

ARABAN AZKEN

asteotan euskararen inguruan piztu den eztabaidaren aurrean, gizarteko eta, nagusiki, kultur munduko hainbat pertsonak gure iritzia plazaratu nahi dugu, hiritarren, instituzioen eta alderdi politikoaren gogoetarako, eta gai honetan tolerantzia, eskuzabaltasuna eta normaltasuna eskatzeko eta ekartzeko.

Kezkatzekoak iruditzen zaizkigu euskararen suspertzeari buruzko polemika honek hartu duen garraztasuna eta erabiltzen ari diren argudio alderdikoak.

Horregatik, manifestu hau izenpetu dugunok, gure herrial-

dean elebitasun zuzen, orekatu eta integratzailea bultzatzeko gogoan bat eginik, manifestu honen bidez honakoa adierazi nahi diogu Arabako gizarteari:

Euskarak ez du inor baztertzen.

Alor pribatuan eta Estatuaren menpeko administrazioan euskara jakitea ez da inoiz eskatzen, edo ia inoiz ez. Eta Jaurlaritzan, Aldundian, udaletan eta haien menpeko erakundeetan, aldiz, oso kasu gutxitan eskatzen zaie funtzionarioei; bestalde, hainbat kasutan (irakaskuntzan, besteak beste) guztiz beharrezkoa delako eskatzen da, beti ere gizartearen

ASTE SANTUA 95



Benidorm 4 egun • 14.200 pta
Algarbe 6 egun • 16.100 pta
Bartzelona 4 egun • 18.400 pta
Salou 5 egun • 22.800
Sevilla 4 egun • 17.600
Piris R. Ekologikoa 8 egun • 27.900

ARABA BIDAIK

Siervas de Jesús 2 (28 16 88 / 28 19 33)
Abrevadero (Frantzia kalea ondoan) 28 21 88
GASTEIZ
Av. Zumalakarregi, 48 (672 28 42) LAUDIO

AUTOBUSA
Pascua Pavisira 5 egun • 26.800 pta
Alpes 10 egun • 48.800 pta
HEGAZKINA
Lisboa 4 egun • 51.600 pta
Londres 4 / 5 egun • 59.800 pta

JANTZI ETA OPARIAK

Kutxilleria, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



elebitasunaren alde • Manifestua

ahalegin horiek gutxitzeko. Gainera, euskararen bizkundera ezin da bakar-bakarrik belaunaldi gazteenen eta funtzionarien bizkar utzi.

Hizkuntz politika instituzio guztietara zabaldu.

Jaurilaritzak markatzen dituen ildo nagusiez aparte, beharrezkoa da Arabako administrazio publiko guztiek ere beren hizkuntz politika edukitzea, baina ez bakarrik administrazio barrurako, baizik eta gizarte osorako ere: politika horrek bateratua eta adostua izan beha du, datu objetiboetan oinarritua eta ez alderdien helburu politikoetan. Bestalde, erakunde politikoek ahaleginak egin beharko lituzkete hizkuntz politika hori gizarte zibileko eta bizitza publikoko beste esparruetara ere zabaltzeko haien eredu izanik.

ESANDAKO GUZTIAGATIK:

-Dei egiten diegu alderdi politiko guztiei, ahaleginak egin ditzaten beraien arteko desberdintasun ideologikoengatik sortzen ari diren hizkuntz gatazka galerazteko eta etikoki jokatzeko, euskararen etorkizuna beren interes elektoralean arabera baldintzatu gabe, eta gai honi buruzko eztabaida zilegizkoak hartu duen garraztasun mailagatik hizkuntz komunitateen artean etenak irekitzen saiatu gabe.

-Dei egiten diegu Arabako administrazio guztiei, gure gizartea elebitasunaren bidean egiten ari den aurrerapausuak eta euskarak azken urteotan izan duen eta aurrerantzean ere izango duen bilakaera positiboa kontutan izateko beren jardueran; horrek esan nahi du maila guztietan hartu behar dutela aintzakotzat gure herrialdean bizi den biztanleria euskalduna, egunez egun sortuz joango diren behar eta eskari berriei behar bezala erantzuteko. Horretaz gainera, hizkuntza inolako



bazterkeriarako erabil ez dadin ere eskatzen dugu.

-Azkenik, dei egiten diogu Arabako gizarte osoari, tolerantziaren urtea den honetan, tolerantziaz jokatzeko jakin dezan hizkuntzaren gaiarekin, normaltasunez har dezan gure herriaren elebitasuna, bai eta

haren eragi-nez gerta daitezkeen eragozpen edo deserosotasunak, gizarte zuzenago bat lortzeko; eta euskara izanik gure lurraldean egoera txarrean dagoen hizkuntza, berau suspertzeko ahaleginetan parte har dezan, gure herri osoaren kulturaren onerako.



moztu eta 1691 edo 834 postakutxetara bidali

TOLERANTZIAREN IZENEAN ARABAN ELEBITASUNAREN ALDE Ni ere ados nago manifestuarekin

IZENA	NAN	IZENPEA



Pertsonaia ezkutua.

- 1- Oso pertsonaia ezaguna da
- 2- Oso jende gutxi ikusi du
- 3- Bere abotsa da ezaguna
- 4- Askot hitzegiten du
- 5- Egunero ibiltzen da kontari
- 6- Euskal neska-mutilen laguna da
- 7- Ordu betez aritzen da



Saiatu zaitez honako marrazki hau margotzen. Ea aurreko hilabetekoa baino politagoa uzten duzun!

EUROPAN ZEHAR

ibili gara eta hiriburu ugari bisitatu, azkenean postalak bidali dizkiegu lagunei baina ahaztu zaigu hiri bakoitza zein herrialdetakoa den, lagunduko al diguzu?

Sofia	Austria
Viena	Errep. Txeka
Berlin	Irlanda
Roma	Bulgaria
Varsovia	Belgika
Dublin	Alemania
Praga	Italia
Bruselas	Polonia



Erantzunak:
Sofia-Bulgaria, Viena-Austria, Berlin-Alemania, Roma-Italia, Varsovia-Polonia, Dublin-Irlanda, Praga-Errep. Txeka, Bruselas-Belgika

"ARGOS"
ZURE BURUA
EZAGUTZEKO
TOKIA

- Astrologi aholkularitza
- Kirol eta terapia-masajea
- Bete-beteko terapiak
- Astrografia
- Erreflexoterapia
- Ikastaroak

Gasteizko Hiribidea, 89, (atzekaldea)
☎ 242671 / 229329

MIKEL DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

ean



Egia ala gezurra ?

- 1-** Azken mohikanoa liburua duela mende t' erdi idatzi zen.
- 2-** Cyrano de Bergerac ezagunak belarri luzeak zituen.
- 3-** Zero zenbakia ingelesek asmatu zuten.
- 4-** Peter Panen laguna Jane deitzen zen.
- 5-** Lantz ezaguna da pastoralak egiten dituztelako.
- 6-** Zantantzarrak ihauterietan ateratzen dira.
- 7-** Ali Babak ez zuen lapur bat ere hil
- 8-** Marigorringoak eguraldiaren berri ematen du.
- 9-** 1811 urtean Napoleonen armadak Iruñeko kaleetan ezarritako agiriak euskaraz ere baziren.
- 10-** Sherlock Holmes Londresen bizi izan zen.

Erantzunak:
Egiak: 1- 6 - 7 - 8 - 9
Gezurak: 2-3-4-5-10



PASADIZO XELEBREA.

Lazkao txiki bertsolari ezagunari buruz argitaratu berri da liburu bat eta bertan hainbat pasadizo xelege biltzen dira, hona hemen horietako bat:

Jakinduria

Lazkao Txikiren iritziz inor ez omen da jakintzu, titulu baten jabe izanagatik ere, nonahi ondo moldatzeko gai izatea omen da jakinduria.

Hara zein pasadizo bitxiren bidez azaltzen zuen bere iritzia:

“Behin batean, Einstein zientzilaria trenean omen zihoan, eta interbentoreak biletea eskatu zionean, patrika guztiak arakatu eta ez omen zuen bileterik aurkitzen. Orduan, zera esan zion interbentoreak: —Zu lasai, badakit zuk biletea beti zeurekin daramazula.

Handik denbora batera, berriz ere, Einstein biletearen bila ari zela ikusi eta interbentoreak fidatzen zela eta uzteko esan zion. Orduan, zera esan zion Einsteinek:

—Ez da zuretzako, orain nik neuk behar dut biletea, nora noan ez baitakit.”

(Lazkao Txiki gizon txikiaren haunditasuna liburutik hartua)

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

ditare


UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

Baskoniarekin Istanbulen elkartuko gara



“Gasteizko
zaletuen lema horra
“txapela buruan eta ibili
munduan””



Egia! Baskonia
Europako Koparen
finalera joango da.
Geuk ziur geunden.
Izan ere, artikulua hau
partidoa hasi aurretik ere
idatz genezakeen lasai
aski. Hain da haundia
baskoniarengan dugun
konfidantza... Martxoaren
14an Europako Koparen
finalean izango gara,
Istanbulen, hain zuzen ere.
Bertan elkartuko gara!



giro atsegina eta lasaia

espezialitatea: etxeko pintxoak

1993ko txapelduna • 1994ko azpitxapelduna

ERRIOXAKO ARDORIK HOBERENAK EZAGUTZEKO AUKERA

ARKA 2 / DATO 27 • GASTEIZ



e
g
u
n
e
k
o

m
e
n
u
a

Europako Koparen finala martxoaren 14an izango da

Istambul: Asia eta Europaren arteko zubia

Iraklis taldeko greziarrak bidean geratu ziren. Atzo Istambul handira iritsi nintzen, egunsenti eta ilunabar paregabeak dituen hiri honetara. Istambul nire oinen azpian dago. Baskonia eta Gasteizko zaletuak, ordea, egun batzuk beranduago etorriko dira. Hona etortzeko bidaia ez da merkea. Horregatik, gasteiztar askok telebistaren aurrean ikusi beharko dute finala, halere, berdin dio, hona bilduko garenok gutxi baina onak izango baikara. Gure lema: "txapela munduan eta ibili munduan", etxean geratu zaretenak lasai egon, turkiarrak zur eta lur utziko ditugu eta. Txistuak, oihuak, Baskoniaren banderak, ikurrinak... ez da ezer faltan izango.

Istambuletik ibiltzen naizen bitartean, makina bat gogoeta datorkit burura. Hiri honetan den-dena da berezia, hala nola, kaleak, gizon-emakumeak, salerosketak egiteko ohitura, azokak... Hemen arrazo guztiak daude bildurik: musulmanak, arabiarak, europarrak...

Antibes ala Beneton

Istambulen nagoela, beste arazo bat sortu zait. Baskoniak Iraklis menperatu bezain laster, Turkiarako hegaldia hartu nuen, eta kazetari tentel honek ez daki oraindik zein den gasteiztarren arerioa Europako Koparen finalean. "Antibes ala Beneton?" galdera dabilkit buruan etenik gabe.

Egia esan, bata zein bestea ez dira arerio errazak, biak ere Frantzia eta Italiako txapelketetan talde garrantzitsuak direlako. Italiarren artean, NBAko Orlando Woolridge jokalaria ohia, Maximo Iacopini, Peter Naumoski, Ricardo Pittis... Horiek eta

gainerako Mike D'Antoni entrenatzaile opetsuaren zuzendaritzapean.

Antibes talde frantziarrari dagokionez, aurtien primeran dabilela esan behar da. Frantziako ligan Limoges-en aurretik dago, jokalarien artean, nabarmenenak hauek dira: Ostrowski eta N' Diaye internazionalak eta Rivers amerikarra. Ez da harritzekoa talde hori Manel Comasen gustokoa ez izatea. Ikus dezakezuenez, talde handia ditugu biak.

Ez dakigu GEU GASTEIZekoek Turkia-rako bidaia ordainduko didaten, baina... Adio Istambuletik!

Ismael Diaz de Mendibil



Iratxe Bidaiak

Gorbea 12 • Tfnoa: 22 00 16 • Fax: 24 84 07

GASTEIZ

martxoko tarifak

Hegazkina: Joan etorria

informazio gehiago bulegoan bertan

LONDRES 23.000
EUROPA 26.000
N.YORK 42.900
MEXIKO D.F. 77.000
CARACAS 90.900
BUENOS AIRES
107.700



HegoAmerikako
jantziak ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren
kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea, 7
Tfnoa: (945) 146261 • Fax: (945) 143509
01001 GASTEIZ



kultur agenda ■ MARTXOA ■



Badator... ...KORRIKA 9

Mikel Laboa

Martxoaren 18an Gasteizko Principal Antzokian Mikel Laboaren kantaldi ikusgarria. Iluntzeko 8,30etan.

Korrika Txikia

Martxoaren 17an Korrika Txikia. Arana kaleko euskaltegitik aterako da arratsaldeko 3,30etan eta 5 kmko ibilbidea egin ondoren Enparantza Berrian bukatuko da. Bertan umeen jaia, gaztelu puzgarria, joku tailer eta abar.

Korrika - Azken jaia

Korrika 9, eguerdiko Ilean bukatuko da Ama Zuriaren Enparantzan. Lekukoak daraman mezua irakurri ondoren bertsoak kantatuko dituzte hainbat bertsolarik.

Ondoren, dultzaineroekin, Larrin dantza eta Txulalai dantzatzeko aukera paregabea izango dugularik.

Egun osoan zehar, musika, ikuskizun eta beste hamaika ekitaldi izango dira. Besteak beste: Bizkar Hezurra, Exkixu, Sorotan Bele, Erramun



Martikorena, Maixa, Itziar eta Garbiñe, Huts hots txalapartariak, Txatanuga Futz Band, Trabuko, Iñigo Perurena, Herri kirolak, Herri bazkaria, bertsolariak, talogileak, artisauak, tonbola, kaleko argazkilariak eta beste milak sorpresa eta jakina...

... zure umore ona!

Zaldi bat, bi kotxe eta hogeita hamar ile

TAUPADA antzerki taldea

Martxoak 19, igandea arratsaldeko 6,30etan Principal Antzokian

(helduak: 600 pta, gaztetxoak: 300 pta)

Umeen euskal jaia Arantzabela ikastolak antolatua

Apirilak 2, igandea Judimendiko gizarte etxean goizean zehar

Kanpetzu, Legutiano, Asparrena, Oion eta Arantzabelako dantza taldeak

Gernika. Un grito. 1937

GASTEIZ antzerki taldea

Martxoak 15, asteazkena 8,30etan Principal Antzokian



Odon de Apraiz ikastola

1. kultur astea

martxoaren 20tik 24ra egunero, 7etan, Ikastolan bertan

mahai-inguruak, hitzaldiak, zinemaldia, jaia, eta abar luze bat...



ARMENTIA
IKASTOLA
kooperatiba

Gaztela ataria, 51
01007 GASTEIZ
Tfnoa: 14.54.45

Ikastolen Elkartea

zeurea delako,
zuk egiten duzu ikastola

Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza
2, 3, 4, 5 eta 6 urte	BBB eta UBI

Hezkuntz estilo propioa

MATRIKULA EZAZU
ZURE SEME-ALABA
95-96 Ikasturtea
DEITU ETA ETORRI
informazioaren bila

Eusko Jaurlaritzak baimendutako Ikastetxea

giro ezin hobea !

MOTRIKO TABERNA
PINTO, 16 - GASTEIZ

bisita gaitzazu !

bar • restaurant •

Portal del Rey 9

albeniz **GASTEIZ**

GEUREKIN MENDIRA



**mendiz mendi
txangoaldia**

**Argantzun
Gasteiz**

Eguna: Martxoak 19 (igandea)
Irteera-tokia: RENFEko tren-geltokia
Ordua*: goizeko 7ak
*Nahitaezko da garaiz egotea, Trenak
ez baitu itxaroten.
Ibilbidea: Argantzun-Busto (976 m.)-
Zaldiaran (982 m.)-Gasteiz

Zatoz !

Oharra: Txangoaldiak lau bat ordu iraungo du.
Oinez egingo da oso-osorik (Lapueblatik
Gasteizera)

EUSKARABA ELKARGUNEA

Giza katea
**Arabarrok
euskarari bai**
Martxoak 14
6etan Andra Mari
Zuri Enparatnzan

sukalde txokotik



Oleaga jatetxetik: Jesus Oleaga

ZERGATIK ZARA SUKALDARIA?

Nire zaletasun nagusia da hori eta, apurka-apurka, nire bizitzan sartu da. Karrera utzi eta aitaren jatetxean hasi nintzen lanean, pintxoak eginez, hain zuzen. Betiko zizka-miskak ez egitearren, sukaldaritzarako grina sortu zitzaidan.

NEGUA AMAITZEAR DAGO. ZEIN PLATER GOMENDATZEN DIZKIGUZU GARAI HONETARAKO?

Pin-pilean ditugu Nafarroako alkatxofak oraintxe. Hemendik lasterrera, babak etorriko dira. Euskal Herriko baratze-tako aberastasunak ernaltzen ari dira une honetan. Beraz, platerik azpimarratzekotan, hauxek aipatuko dizkizuet: gure menestra ospetsua, alkatxofak almeje-kin, babak kipularekin...

ZEIN DA ZURE JAKIRIK GUSTOKOENA?

Zartaginez egiten dena. Osasun arazoak medio, ezin dut horrelakorik jan. Taloa ere gustatzen zait eta txorizoz hornituta badago, are gehiago.

ZER DA EUSKALDUNONTZAT ONDO JATEA, ZURE IRITZIZ?

Fin jatea eta ondo jatea gauza bera da, gaur egun. Lehen, aldiz, zilborra betetzea zen helburu bakarra. Orain jakiak ez dira lehen bezain astunak. Itxura

berria duten platerak preziatuenak dira. Hemengo saltsak platerak apaintzeko berebiziko osagaiak dira.

JESUS, BADAKIGU BABARRUNAK ZURE JATETXEKO IZARRAK DIRELA. NONGO BABARRUNAK JAN DITZAKEGU ZUREAN?

Hiru lekutakoak: beltzak, Arbizukoak eta Idiazabalekoak; gorriak, berriz, neronek landuak, Mungiako baserrikoak, beraz.

AMAITZEKO, DEMAGUN JESUS GAZTEAGOA ZARELA ETA LIGATU NAHI DUZULA. ZEIN AFARI PRESTATUKO ZENUKE HORRELAKO BATERAKO?

Egia esan, bikote gazte asko etortzen dira nire jatetxera. Oso gustora egoten naiz beren artean. Hogeita hamar urte baino gutxiago izaten dituzte eskuarki. Horiek plater berriak atsegin dituzte. Ni gaztea nintzenean, egundoko betekada hartzeko moduko afari batera gonbidatzen genuen zena zelako neska, berarekin ligatu ahal izateko gero. Orain, berriz, mokofinagoak dira eta hori ondo dago. Hortaz, horrelako egoera batean plater hauek erabiliko nituzke: lehenengo, alkatxofak, eta, gero, plater tradizional bat, alegia, behi-karrilerak gure ardoaren saltsaz lagundurik. Zalantzarik gabe, horrekin ligatzen ez duenak jai du.



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"Kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz



Zeu ere Geu Gasteiz



in

KesA

Zein da zure iritzia GEU Gasteiz irakurrita?

☐

ona!

☐

balekoa!

☐

txarra!!!

Zelakoa deritzozu gure diseinuari?

☐

ona!!!

☐

balekoa!

☐

txarra!!!

Zer eskertuko zenuke?

- ☐ Orrialde gehiago
- ☐ Orrialde gutxiago
- ☐ Argazki gehiago
- ☐ Argazki gutxiago
- ☐ Marrazki gehiago
- ☐ Marrazki gutxiago

Sailik onenak?

- ☐ PORTADA
- ☐ SARRERA
- ☐ GRAFOLOGIA
- ☐ ZURRUMURRUAK
- ☐ EUSKARA BA(N)TUA
- ☐ EUSKALTASUNEAN LAGUN
- ☐ HONTZA
- ☐ KULTURA
- ☐ KIROLAK
- ☐ KALEA MINTZO
- ☐ AGENDA
- ☐ AUZORIK AUZO
- ☐ ERREPORTAIK
- ☐ BERTSOAK
- ☐ HAURRAK
- ☐ KULTUR AGENDA
- ☐ SUKALDE TXOKOA
- ☐ KOMIKIA

Zein demontre zara zu?

Esaiguzu nolakoa zaren

Sexua:

☐

EMAKUMEZKOA

☐

GIZONEZKOA

A dina:

☐

0-12

☐

12-20

☐

20-35

☐

35-120

Iharduera:

☐

LANGILEA

☐

LANGABEA

☐

JUBILATUA

☐

ETXEKOAK

☐

IKASLEA

Euskaldun:

☐

ZAHARRA

☐

BERRIA

Aldizkari gehienok irakurleari zuzendutako inkesta egin ohi dugu. Kasu honetan, Geu Gasteizi egokitu zaio. Gure aldizkariari bizi bizitasun pixka bat eman liezaioketen ideiak, proposamenak, itxuraldaketak, bronkak ere, jaso nahiko genituzke. Hori gure asmoa, hau gure inkesta. Bidaliguzu, arren, zure aukera helbide honetara. Laster izango duzu emaitzaren berri.

GEU GASTEIZ Inkesta
Pedro Asua 2 3. solairua 90. bulegoa
Gasteiz
 edo bidalguzu FAXex 22 21 53 zenbakira

UDABERRIA
 elkarte

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
 Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
 automatismoak
 girotzeko musika
 eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
 Faxe: 943 10 85 47 **20600 EIBAR**

ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
 01001 GASTEIZ

bertso astea

martxoak 27 • astelehena

Mahaingurua:

Emakumeak eta bertsolaritza

Moderatzailea:

Kristina Mardaraz

Parte hartzaileak:

Karmen Larrañaga

Andoni Egaña

Arantzazu Loidi

Maddalen Iujanbio

martxoak 28 • asteartea

Kantaldia : Sarasua anaiak

(*) Fauna txiki bat bertso berritan piano lagundurik

martxoak 29 • asteazkena

Mahai Ingurua:

Lehengo eta gaurko bertsolaritza

Moderatzailea:

Abel Enbeita

Parte hartzaileak:

Jon Maia

Imanol Lazkano

Iñaki Murua

Jon Lopategi

martxoak 30 • osteguna

Erramun Martikorena

(*) Bertso zaharrak eta kantak Iparraldetik

(*) saio hauetarako sarrera: 400 pta •
hiru saioetarako abonoa: 900 pta
TXUSTAN salgai

martxoak 31 • ostirala

(*) Bertsolari Gazteen saioa

Bertsolariak:

Ainhoa Agirreazaldeg

Jon Maia

Zigor Enbeita

Estitxu Fdz

Gai jartzailea:

Serapio Lopez

ondoren... Txusta tabernan

Bertso Afaria

Prezioa: 1.500 pta



antolatzailea

**GASTEIZKO
BERTSO
ESKOLA**

babeslea



laguntzaileak



MATRRIKULA
ZABALI

MUGABARIK

HIZKUNTZ AKADEMIA

frantsesa • ingelesa • euskara •
haurrak eta helduak

MOLINUEVO PAREAN



13 95 8

**KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK**

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20





TIRA, ERREDAKZIO BATZOR-
DEARI GALDE-RA BAT: ORAIN
NERE GIDOIAK HOLLYWOOD-
EN IDAZTEN DIRA?



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	





*Jalgi Hadi
euskaraz!*

1995eko martxoaren 17tik 26ra
D.GARAZI-GASTEIZ

